

Urteko lehen lau hilabeteetan, Euskadin duen lidergoa sendotu du **Etxe eta Bizitza Arriskuko** negozioan

Kutxabank Segurosek poliza berrien produkzioa %9 handitu du

- **Ehorzketa eta Osasun aseguruak erruz hazi dira**
- **Etxebizitza aseguruak % 43 egin dute gora, eta poliza guztien kopurua 916.500dik gora kokatu da**

2021ko maiatzaren 13an. Kutxabanke bere jarduera komertzialean **bilakaera bikainarekin** hasi du urtea, apirilaren bukaerara arte hazkunde nabarmena lortu baitu produkzio berrian, bai polizetan nola primatan.

Aseguruen jarduerak banka-negozioari egiten dion ekarpen trinko eta sendoa erakusten du epealdi honetan saldu diren poliza berrien kopuruak, **44.000tik** gora, iaz garai berean baino **% 9,2** gehiago.

Aseguruen bildumako produktu guztietan sumatzen da negozio berriaren gorakada, baina **Osasun** eta **Ehorzketa aseguruak** esparruetan da bereziki aipagarria.

Aseguruen alorrak oro har izan duen bilakaerarekin bat dator Kutxabankena. Izan ere, 2020. urtean osasun-krisialdiarengatik inoiz baino lagun gehiagok sinatu zituzten era honetako polizak. Kutxabanken kasuan, **Osasun-aseguru** berriak **% 206** igo dira aurten, eta **Ehorzketen** alorra **% 54**.

Horrez gain, **Etxebizitza polizak % 43** igo dira, eta **Etxebizitzako Aseguru Berdeek** aurrerakada aipagarria izan dute, hau da, energiaren ikuspegitik A edo B kalifikazioa duten etxe eraginkorrenzat espreski sortutako aseguruak. Poliza jasangarriok **% 380** hazi dira iazko lehen lau hilabeteekin alderatuz gero.

Emaitza on hauen gakoa Kutxabanke duen bizitasun-komertzialean datza, Bankuarentzat aseguruak produktu estrategikoak izanik geroz eta pisu handiagoa baitute finantza Taldearen emaitzen kontuan.

Apirilaren amaieran, polizen **stocka 916.500dik gorakoa** zen, eta jarduera honek **33 milioiko** irabaziak sortu zituen lehen hiruhilekoan, 2020. urtean baino **% 11** gehiago.

Datu hauek Kutxabank Seguros **Euskadiko aseguruak alorreko buru** mantentzen dute, **lider baita Etxebizitzako eta Bizitza Arriskuko** (aurrezki-aseguruak kenduta) negozio-bolumenean, bai eta **Ehorzketa** aseguruak negozio berriko primetan ere.